

## JONDONI JOANI BATIXTAREN SORTZEA

### Lehen irakurgaia

( *Jainkoak maite duen profeta* )

#### Izai profetaren liburutik 49, 1-6

- 1 **Ugarteak, adi nezazue, urrungo herriek, entzun!  
Sortu aitzin deitu ninduen Jaunak,  
amaren sabelean nindagola, nere izena erran zuen.**
- 2 **Nere ahoa ezpata zorrotz egin zuen,  
bere eskuaren itzalpean gerizatu ninduen;  
bere hautuzko gezi egin ninduen, eta bere gezi-untzian gorde.**
- 3 **Erran zautan:  
“ Zu nere zerbitzaria zira, Izrael,  
Zure bidez agertuko dut nere ospea.”**
- 4 **Eta nik, nere baitan nion:  
“ Alferrik nekatu naiz,  
hutsean eta alferrik erre ditut nere indarrak.”  
Bainan Jaunaren baitan zagon nere eskubidea,  
Jainkoaren eskuetan nere lansaria.**
- 5 **Orai hunela mintzo da Jauna,  
amaren sabelean moldatu ninduen, haren zerbitzari izaiteko,  
Jakob harenganat izularazteko eta Izrael biltzeko.  
Ohorez jauntzi nau Jaunak, eta nere indarra Jainkoa da.**
- 6 **Hunela mintzo da:  
“ Ez da aski zu nere zerbitzari izaita  
Jakoben leinuak berriz xutik ezartzeko,  
eta Izraelen bizirik geldituak itzularazteko.  
Jendaldeen argi ezarriko zaitut,  
nere salbamendua lurraren azken mugetaraino hel dadin.”**

Izairen liburua, orrialde batzuetan, misteriozko Jainkoaren zerbitzari batez mintzo da, deusek bere helburutik bazterraraziko ez duen zerbitzari batez. Hau, etorri beharra zen Mesiasen itxura bezala ikusia izan da. Bainan zerbitzari horrek, parte, gogora dakar ere, bertze presuna baten itxura, bere bizi eta bere erakaspenez " etorri beharra " zen hura ezagutaraztera preparatua zena. Hori Jondoni Joanes Batista da. "...Sortu aintzinetik Jaunak gogoan izan ninduen, amaren sabelean nintzela nere izenaz deitu ...". Jeremi batek, adibidez, gazterik senditu du, bere bokazioa zer zen garbiki ikusi aintzin, Jainkoak hari pentzatzen zuela .

Bainan, sortu aintzin, profeta ekarria den haren ere, berez deusik ez diro : "*Ez naiz Mesias* » ( Jn 3, 28 ) zion Joanesek. Jaunaren eskuetan tresna bat da. Behar delarik erabiliko dena. Profetaren indarra Jainkoaren hitzetik dator : "*Bizia baita Jainkoaren hitza, bizia eta eragin haundikoa, bi ahotako espata baino zorrotzagoa...*" (Heb 4,12). Ondorioz Joanesen ahoa ezpata zorrotz bilakatzen da .

Jainkoak hautatu zerbizariaren egitekoa egiteko zaila da, nekagarria, etsigarria ere bai :

" *debaldetan naiz higatu...*" Bizkitartean, bere bihotz barnean, sendi du Jainkoaren begietan norbait balios dela eta " *amaren sabeletik moldatua* " izana dela, haren baitan Jainkoa ospatua izan dadien ..." *Hortakotz ez da etsipenean erortzen* ", badaki noren baitan duen bere fedea finkatua " (2 Tm 1,12) " *Ahul naizelarik, orduan naiz azkar.* " (2 Kor 12 ,10) Izairen liburuaren arabera, apalenean delarik, orduan dio Jainkoak bere konfiantza berritzen eta, gainerat ere, bere misioa zabaltzen..." *Herrialdeen argi ezarriko zaitut ,nere salbamendua lurraren azken bazterretaraino hel dadien ..."*

Edozein profetaren bizia laburra da eta hunek dioena ez da urrun zabaltzen. Nahiz itxuraz eragin ttipia duen zerbitzariaren hitzak, Jainkoak hautatu tresna bat delakotz, profetaren mezua lurraren azken mugeraraino hedatzen da.

## **Salmoa 138**

**Leloa:       Eskerrak zuri, nere Jauna,  
                  zoin miragarri zuk egina !**

**Zuk barnez barne dakizu, Jauna, nere berri,  
Bai ni noiz jeiki, ni noiz jarri.  
Urrundik duzu ikusten zer den, zer gogoan,  
Nik pentsatua norat zoan.**

**Zuk nauzu egin, eta zuk neri bihotz eman,  
Nere amaren sabelean.  
Eskerrak zuri, miragarriki naiz egina,  
Miragarria zure lana.**

**Ongi zinautan arima jada ezagutzen,  
Nere hezurak nun zer ziren.  
Denen ixilik egina izan naizenean  
Eta ontua lur barnean.**

Salmo hau berez frango luzea da. Hemen jasta baizik ez zaiku emaiten. Damurik, zeren salmotegiko poema ederrenetarik baita, xoragarria. Poetaren mirespena da Jainkoak eginaren aitzinean : « *Miragarria zure lana.* » Hiru hitz horiek laburbiltzen dute dena. "*Miragarria egin nauzu, Jauna, amaren sabeladanik.*"

Hala ere urrunago doa salmoa. Izrael herriari aplikatu behar zaio mirespen hori. Jainkoak zer ez dio egin Izrael bere herriari ? Zer gauza miragarriak ez ditu egin haren bidez ? Ez haatik beretzat atxik zitzan berekoiki, bainan gizadi guzirat zabal zitzan. Aitak, Izraelen bidez Jesus emanik, dena eman dauku. Denak Jainkoaren seme-alabak gira. Bai, "*Eskerrak zuri, Jauna, zoin miragarri zuk egina !*"

## Bigarren irakurgaia

( *Joanesek Jesusi bidea prestatu zion* )

### **Apostoluen Egintzetarik                    13, 22-26**

- Pizidia-Antiokiako zinagogan, Paulok Judueri erran zioten:**
- 22    “ Jainkoak Dabid ezarri zuen errege,  
eta huntaz aitormen hau egin zuen:  
“Dabid, Jezeren semea aurkitu dut, nere gogoko gizona;  
nik nahi guzia egingen du.”**
- 23    Hitzeman bezala, Dabiden hazitik  
sortu dio Jainkoak Izraeli salbatzaile bat, Jesus.**
- 24    Hau etorri aitzin, bihozberritzeko bataioa  
predikatu zion Joanesek Izrael herri osoari.**
- 25    Bere ibilaldia bururatzean, hau zion Joanesek:  
“ Ni ez naiz zuek uste duzuenak.  
Bainan huna heldu dela nere ondotik beste bat,  
eta ni ez naiz on haren oinetakoen laxatzeko ere.”**
- 26    Haurrideak, Abrahamen odoleko zireztenak,  
eta zuek, gure Jainkoa adoratzeko duzuenak,  
gu guzieren igorria zaiku salbamen-mezu hau.”**

Dabidi hitzemana eta Joanesen lekukotasuna. Salbamenduaren historia nolakoa izan den konstatzen dute apostoluek, hemen Paulok. Pizidiako Antiokian den zinagogan mintzo da Paulo. Dabidi hitzemana izan zitzaionetik hasiz, igurikatua zen Salbatzailea Jesus dela erraiten diote judueri .

Jezeren seme den Dabid, Jainkoak errege egin du. Hunen nahikunde guziak beteko dituen gizona da hau. Ez ahatik itzalik gabekoa; bainan Jainkoak barkatuko dio bere bekatuaz urrikitan sartu eta ,egin dituen obra on guzieren gatik, bere populuaren batasuna egin du eta ondoriotasun azkenik gabea hitzemana izan zaio. Dabid Mesias beraren itxura bilakatu da. Paulok dio Dabiden hazitik sortu diola Jainkoak salbatzaile bat Izraeli, Jesus . Paulok aipatzen diote ere Joanesen lekukotasuna : " *Ni ez naiz zuek uste duzuenak, bainan huna heldu dela nere ondotik beste bat .* "

## Ebanjelioa

*Alleluia, alleluia*  
**Zu, haur saindua, Jaungoikoaren mezulari,  
Bide apaintzen joanen zitzaito Jainkoari.**

### **Jesu Kristoren Ebanjelioa san Luken liburutik 1, 57-66. 80**

- 57** Elixabeti bete zitzaiton haur ukaiteko denbora,  
eta seme bat sortu zuen.
- 58** Auzoek eta ahaideek jakin zuten zein urrikalkorra  
izan zen Jauna haren alderat, eta bozkariatu ziren harekin.
- 59** Zortzigarren egunean, haurraren ebakitzeko etorri ziren,  
eta aitaren izena eman nahi zioten, Zakarias.
- 60** Bainan amak erran zuen: " Ez , Joanes izanen du izena."  
**61** Erran zioten: " Ez da nehor zure jendakian izen hortakorik."  
**62** Orduan, aitari keinuka galdatu zioten zer izen eman nahi zion.  
**63** Harek oholtxo bat eskatu eta izkiriatu zuen: "Joanes du izena."  
Eta denak harritu ziren.
- 64** Bat-batean ahoa ideki zitzaion, eta mihia libratu:  
mintzo zen, Jainkoa goresten zuela.
- 65** Beldurrak hartu zituen auzo guziak,  
eta Judeako mendialde guzian jendea gertakari hortaz mintzo zen.
- 66** Jakin zuten guziek bihotzean zaukaten, ziotela:  
" Zer izanen ote da haur hori?"  
Alabainan, Jaunaren eskua berekin zuen.
- 80** Haurra handituz zoan, eta azkartuz haren izpiritua.  
Basamortuan bizi izan zen,  
Izrael herriaren aitzinean agertu zen eguna arte.

San Lukek Jesusen eta Joanesen sortzea eta haur denbora, biak elgarri lotuz kondatzen ditu .

Elixabetek, bere xaharrean, haur bat ukaiten du eta denak sortze hortaz bozkariatzen dira. Biblian, haur ukaitea Jainkoaren benedizione bat bezala ikusia da eta hemen, kasu huntan, mirakulu bat bezala, Elixabet, adinean han harat joana baita . " *Zortzigarren egunean haurraren ebakitzeko etorri ziren* " eta dela Elixabet amak, dela Zakarias aitak, biek haurraren izena " Joanes " izanen dela diote. Hori aingeruak errana baitzion Zakarias : " *Joanes emanen diozu izena .* " (Lk 1,13)

"*Bat-batean ,(Zakarias ) ahoa ideki zitzaion eta mihia libratu, mintzo zen Jainkoa goresten zuela* " Jainkoak bere fede eskasa barkatzen dio eta berriz elea emaiten. Lehena izanen da Jainkoak igorri salbamenduaren berri onaz bozkariatuko den presuna. " *Beldurrak hartu zituen auzo guziak ...*" Horra beraz beldurra, Jainkoaren aitzinean senditzen den errespetuzko beldurra, Jesus piztuaren mirakuluek apostoluen baitan sortuko duten harridurazko beldur hura : " *Zer izanen ote da haur hori ?* Sortu aintzin, Jainkoarn graziaz, " *Jainkoaren eskua berekin zuen ...Basamortuan bizi izan zen ...*" Basamortua edo desertua ez da bakarrik leku bat : Han ditu Jainkoak hautatu dituenak frogatzen, moldatzen, beren misioari buruz prestatzen. Moisek, basamortuan zagola, erretzen ez zen sasia sugarretan ikusi

zuen (Jal 3 ,1-2) . Jesus, predikatzen hasi aintzin, 40 egunez desertuan egon zen (Lk 4, 1-2) .  
Jondoni Joanes Batista, jendeari agertuko delarik eta bataiatzen hasiko, desertuan iragan bizi  
gogor haren itxura eskainiko du .